

KIMU MEMORIA 2016/17

EGINIKO IBILBIDEA ETA IKERKETA

AINARA UNANUE

1-JAIALDIAK

1- MOMIX. 26 FESTIVAL INTERNATIONAL JEUNE PUBLIC

Kingherseim. Frantzia (Alsazia)

2016ko Urtarrilaren 26tik –Otsailaren 5era

IKUSITAKO ANTZEZLANAK:

- “*Les fourberies de scapin*”. Cie Les Géotrupes (Frantzia)
- “*Le garçon à la valise*” . La compagnie de Louise (Frantzia)
- “*Petites histoires grrrochannes*”. Théâtre des 4 mains (Belgika)
- “*John Tamet*”.Teatro delle Briciole (Italia)
- “*Un poyo rojo*”. Teatro físico (Argentina)
- “*Petite ballade por peu*”. Teatro all'improvviso (Italia)
- “*L'ogrelet*”. Cie La Berlue (Belgika)
- “*Tetris*”. Arch 8 (Herbehereak)
- “*Udo, complètement à l'est*”. Cie La Cordonnerie (Frantzia)



Teatro delle Briciole - La compagnie de Louise - Arch 8 - Cie La Berlue - Théâtre des 4 mains

SORKUNTZA PROIEKTUEN AURKEZPENAK:

- "Buffalo boy"*. Láteuchus (Frantzia)
- "Jean et la chamber à airs"*. Cie L'Artifice (Frantzia)
- "Le voyage de Malenky"*. Cie Traversant 3 (Frantzia)
- "Frusques/ Act 2"*. Cie Catherine Dreyfus.(Frantzia)
- "Laisse tomber la nuit"*. Cie Vilcanota.(Frantzia)

Festibal honetan pieza bitxiak ikusi nituen, baina nire ustez, interesgarriena proiektuen aurkezpenak izan ziren. Sortzaileen arteko topaketa aberasgarria bizitzeko eta proiektu berritzaileak ezagutzeko aukera izan nuen.

2- VISIONI DI FUTURO, VISIONI DI TEATRO...

Bolonia. Italia

2017ko Otsailaren 24tik- Martxoaren 5era

IKUSITAKO ANTZEZLANAK:

- "Una storia sottosopra"*. La Baracca (Italia)
- "L'arpa mágica"*. La Baracca (Italia)
- "Cache-cache"*. Théâtre de La Guimbarde (Belgika)
- "Escargot"*. Teatro del Piccione (Italia)
- "Cerca"*. Teatro al vacío (México)
- "Hjem/Casa"*. Theatre Madam Bach (Dinamarka)
- "Capucetto e la nonna"*. Giallo Mare Minimal Teatro (Italia)
- "L'uomo d'acqua e la sua fontana"*. CollettivoXL eta Compagnia Pietribiasi/Tedeschi (Italia)
- "Niet drummen"*. Theater De Spiegel (Belgika)
- "Felice"*. Teatro delle Briciole (Italia)

-“Mostrami i mostri”. Compagnia Il Melarancio (Italia)

-“Blisko”. Children art centre. (Polonia)



La Baracca – Teatro al Vacío – Teatro del Piccione – Theatre de la Guimbarde

HITZALDIAK:

-“Open Window: Una serata con ASSITEJ Cuba”

Esther Suárez Durán, Maikel Valdés Leyva eta Teresa Denisse Oliver Cuban egiten duten lanari buruz hitz egiten dute. Cubako haur antzerkiaren egoera eta historia aurkezten digute.

-“Il bambino spettatore”

Gerald Taube, Frankfurtoko Kinder-und Jugendtheaterzentrum-ko zuzendariak eta Carlos Herans-ek (Small Size) haur –ikusleari buruzko elkarrizketa mantentzen dute

-“Artists meet early years”

Herrialde ezberdinetako sortzaileek (Mexico, Zimbabwe, India, Belgika, Erresuma Batua eta Errumania) Boloniako Haur eskolako umeekin topaketak egin ondoren, performance batekin, beraien esperientzia aurkezten digute.

Boloniako festibala aktibitatez gainezka zegoen. Esperientzia aberasgarria izan zen. Gainera, hemen lehen haurtzaroko pieza gehiago ikusteko aukera izan nuen. Jaialdi honetan ikusi nuen lehen aldiz “ Teatro al Vacío” –ren lana. Niretzat benetako aurkikuntza izan da. Lana komplexu eta berritzailea sortzen dute mugimendurekin

eta espazioarekin jolasten. “Théâtre de la Guimbarde” –ko ikuskizuna: *Cache- Cache* ere harritu zitzaidan. Proposamen simple batekin zirko pieza bat aurkezten dute. Lan ausarta iruditu zitzaidan, zeren inoiz ez nuelako ikusi izan ume hain txikiengazako akrobazia ikuskizun bat. “Theater De Spiegel” eta bere pieza *Niet drummen* izugarri gustatu zitzaidan. Kalitatearen ikuspuntutik bikaina da eta espazio eszenikoaren tratamendu interesgarria planteatzen dute.

3- KAOLIN & BARBOTINE

Limoges. Frantzia.

2017ko Maiatzaren 11tik- 20ra

Festibal honetan ez nintzen *Kimu bekarekin* egon, baizik eta antzezle moduan Egun horietan “Nomadak” ikuskizunarekin lan egitera joan nintzen eta, lan oso interesgarria eta aberatsa denez, memoria honetan sartzea bururatu zait. Interpretetzaileek teknika desberdinak erabiltzen zituzten : kantua, musika, antzerkia, objektuak eta mugimendua. Guztiak planteamendu eszeniko eder batekin bikain lotuta. Bidai polit eta sakon bat.

IKUSITAKO ANTZEZLANA:

-“*Boucles d’O*”. Compagnie du Porte-Voix eta Compagnie À tous vents. (Frantzia)



Boucles d’O

4- GREC. FESTIVAL DE BARCELONA

Bartzelona.(Espainia).

2017ko Ekainaren 8tik Uztailaren 31ra

IKUSITAKO ANTZEZLANAK:

-*"My baby is a queen"*. La petita malumaluga. (Katalunia)

-*"Fidelis fortibus"*. Circus Ronaldo. (Belgika)

-*"El buit"*. Sergi Ots, Cia.Estampades eta Cia. Impás. (Katalunia)





La petita malumaluga – Circus Ronaldo – El buit

5- BESTE IKUSKIZUN BATZUK

Kimu diru-laguntzaz aparte, Euskal Herrian denboraldi honetan beste haurtxaro eta nerabeentzako ikuskizun batzuk ikusi ditut:

- “*Nundik*”. Kiribil (Iparralde)
- “*Paper memories (Work in progress)*”. Jabutti Theatre (Eskozia)
- “*Cielo*”. Teatro al Vacío (Mexico)
- “*De flor en flor*”. Cia. De danza Fernando Hurtado (Espainia)
- “*Cubos*”. Bambalina Teatro (Espainia)
- “*Teatro Mohicano*”. Producciones Mohicano eta Pabellón 6 (Euskal Herria)
- “*Zapata kutxa batean bizi zen neskatoa*”. Zum Zum Teatre (Katalunia)
- “*Wangari, zuhaitz neska*”. Karlik Danza (Espainia)
- “*El perro del hortelano*”. 300 Pistolas (Espainia)
- “*Tira Aurrera*”. Panta Rhei (Euskal Herria)
- “*Sueña*”. Date danza (Espainia)
- “*Kolorez kolore*”. Pantzart Teatro (Euskal Herria)
- “*Laberinto de colores*”. Cia. No somos monstruos (Espainia)
- “*Jop*”. Tyl Tyl Teatro (Espainia)

- "Silencis"*. Claire Ducreux (Frantzia)
- "Náufragos"*. La Industrial Teatrera (Katalunia)
- "Bakhus"*. Glaukos (Frantzia)
- "Cuerdo"*. Karl Stets (Danimarka)
- "Rojo"*. Mireia Miracle (Katalunia)
- "Mulier"*. Cia. Maduixa (Espainia)
- "La carta"*. Paolo Nani (Italia)
- "Men in coats"*. Men in coats (Erresuma Batua)
- "Topa"*. Kukai danza eta Brodas Bros (Euskal Herria)

2-FORMAKUNTZA

1- VISIONI DI FUTURO, VISIONI DI TEATRO: LABORATEGIAK

Bolonian (Italia) 2017ko Martxoaren 4 eta 5ean

-*“Corpo/Spazio=Gioco”*- Martxoak 4

Irakasleak: Adrián Hernández eta José Agüero (Teatro Al Vacío. Mexico)

Tailerraren helburua espazioarekin eta beste pertsonekin erlazionatzeko gaitasunaren bidez gure gorputza ezagutzea da. Ideia hau haurtxoentzako proiektu artistiko bat sortzerakoan, funtsezko elementu gisa ulertu behar dugu.

Espazioan jolasten duen gorputz batek, haurtzaroarekin, publikoa bezala, harremanetan jartzeko, komunikatzeko lengoia aurkitzeko aukera dauka.

Gorputzaren presentziak, orain, momento honetan eta mugimenduak, artista eta publikoaren arteko topaketa bultzatzen dute, eta eszenaren garapena ahalbideratzen dute.

Espazioan mugitzen den gorputz batek aktore eta publikoaren artean komunikatzeko amaigabeko aukerak irekitzen ditu



Adrián Hernández eta Jose Agüero - Teatro al Vacío

-“*Quindi, balliamo?*”- Martxoak 5

Irakaslea: Yutaka Takei (Dantzaria. Frantzia)

Denok dakigu dantza egiten. "Nahiz eta ezin dugula dantza egin pentsatu, gure gorputzak badaki nola egin. Gu zara gara gorputza blokeatzen duguna."

Eguneroko bizitzan-gure ekintzak gehiegi kontrolatzen ditugu. Beraz, laborategi honetan, gure gorputzari modu natural batean erreakzionatzen uzten diogu.

Bihotza mugitzen da, gorputza mugitzen da; bihotzak dantza egiten du, gorputzak dantza egiten du.



Yutaka Takei

2- L'ACTEUR EN MOUVEMENT: ATELIER DE FORMATION ET RECHERCHE THÉÂTRALE

Cibouren (Frantzia) 2017ko Martxoaren 11tik-13ra

Gasteizen (Euskal Herria) 2017ko Maiatzaren 6tik-8ra

Irakaslea: Jean-Philippe Lereboure (Compagnie des Syrtes. Frantzia)

Laborategi honetan mugimenduaren lengoaia poetikoarekin lan egiten dugu: Inprobisazioa, teknika, kampo eta barne-estimuluak, gorputz entzutea... Antzerki eta dantzaren arteko erlazioa ikertzen, inprobisazio bide berriak aurkitzen ditugu.

Objektuekin jolasten dugu mugimenduari buruz hausnarketa egiteko, hots, objektuak gorputzarekin daukan lotura ikusteko

Sorkuntza prozesuan sakondu egin dugu. Gai bat erabaki eta mugimenduaren bidez garatu egin. Gero, gorputza eta mugimendutik hitza agertzen da.



Jean Philippe Lereboure

3- CREACION DE PERSONAJES A PARTIR DEL MOVIMIENTO

Madrilen (Espainia) 2017ko Uztailaren 3tik -8ra

Irakasleak: Mar Navarro eta Andrés Hernández

Saioak hiru zatiz osatzen dira: Mugimendua, inprobisazioa eta ahotsa.

Oinarri fisikotik hasita, pertsonaien sorkuntza lan egiten dugu. Horrela aurkituko dugu aktorearen eta bere sorkuntzaren arteko distantzia.

Mugimendua eta ahotsaren bidez lanari ekin egiten diogu. Aktoreak pertsonaiaren psikologia kanpora atera dezan lortzen dugu. Espazioan bere emozioak eta bultza egiten dioten grinak idazten ikasten du.

Elementu anitzekin lan egiten dugu: Mugimenduen azterketa, grinaren dinamika, natura pertsonaien serbitzuan; Ahotsa espazioan: Durundi guneak pertsonai ezberdinen bidez, abestiak eta emozioak erabiltzen.



Mar Navarro eta Andrés Hernández

4- ESTILOS TEATRALES A PARTIR DEL MOVIMIENTO

Madrilen (Espainia) 2017ko Uztailaren 10etik-15era

Irakasleak: Mar Navarro eta Andrés Hernández

Mugimenduaren ikerketa eta ekintza simpleen azterketaren bidez, antzerki idazkera ezberdinetan murgiltzen gara: komedia, melodrama eta tragedia.

Oinarrizko antzerki –estilo hauek eremu eta gorputz lan espezifiko bat daukate eta arau zehatzak.

Keinu neutroarekin hasi eta gero, komikoa, melodramatikoa edo tragikoa bihurtzen duen kalitatea bilatzen dugu. Helburu hau lortzeko, mugimendua eta ahotsarekin lan teknikoa praktikatzeko, gorputza eta hitza inprobisazioan aske uzteko.

Kurtsoak eduki ezberdinak eskaintzen ditu: Komediako lan teknikoa, funtsezko pertsonaiak, lazzis, sentimenduak antzeztokian, koro tragikoa, textuen lana.

5- TRAINING PERSONAL CON CHEVI MURADAY

Madrilen (Espainia) 2017ko Abuztuaren 29, 30 eta Irailaren 2an.

Irakaslea: Chevi Muraday (Los Dedae Danza. Espainia.) (Dantza sari nazionala 2006)

Hiru egunetan zehar koreografoak lan indibiduala nirekin egin zuen.

Jaurnaldiak bi ataletan banatu ziren.

1-Hasteko , dantza lan teknikoan ardaizten gara. Dantza garaikideko elementuak lan egiten dugu, gorputza eta bere pisua solairuan erabiltzen, kontakt teknikan sakontzen.

Ariketa –multzo bat eskaintzen dizkit nire teknika hobetzeko eta gabeziak lantzeko.

2- Bigarren atalean sorkuntza prozesu bat burutzen dugu. Ideia bat hartu eta bere kreazioak sortzeko jarraitzen duen bidea erabiliz, pieza txiki bat egitera gonbidatzen nau.



Chevi Muraday - Los Dedae Danza

3-IKERKETA

LEHEN HAURTZAROENTZAKO ANTZERKI SORKUNTZA

Bizitzako lehen etapetan, esperientzia artistikoari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio. Giro honetan lehen haurtzarorako antzerki sorkuntza agertzen hasten da. Bide luzeko fenomenoa, Danimarkan, Belgikan, Austrian edo Italian bezalako herrialdeetan.

“Kimu” proiektuari esker nazioartean burutzen ari den lan interesgarria ikusteko aukera izan dut. Talde eta artista hauetako batzuk: “Date Danza” (Granada), Yukata Takei (Frantzia), “Teatro al Vacío” (Mexiko-Argentina), “Toihouse” (Austria), Florence Goguel-ek (Frantziak), haiekin bere sorkuntzei buruz hitz egiteko aukera eman didate. Konklusio bezala, nire ustez sormen prozesu hauetan kontuan hartu behar ditugun alderdi nagusietako batzuk laburtzea gustatuko litzaidake

Lehen haurtzaroari buruz hitz egingo dugu, 0 urtetik 6 urtera arte, hauek bi taldeetan banatuz: Bata 0 eta 3 urte bitartean eta bestea 3 eta 6 urte bitartean. Eskolaurreko adinaren aurreko eta ondorengo prozesu sozialak, emozionalak eta erlazionalak desberdinak dira, hori dela eta eskaintzen zaien eskaintza artistikoak ere ezberdinak dira.

1-PRESENTZIA

Oro har, “presentziaz” hitz egiten da eszenaren funtsezko printzipio bezala Txikienekin batez ere. Pieza hasten denean gertatzen den lehen gauza ikuste-kontaktua da, hemengo eta oraingo berrespena, haur-ikuslea artistaren aurrean. Hau, eszenikoki, hizkuntza sotil batean bihurtzen da, non kontenplazio, entzumena, ekintza eta topaketa uneak batzen diren.

“Teatro al Vacío” konpainiaren Adrián Hernández-ek eta Jose Agüero-k, oso ideia interesgarriaz hitz egiten dute, “Zero puntuko” nozioaz:

“Ehun eszenikoan inongo estimulurik proposatzen ez den uneak. Zerbait amaitzen denean eta zerbait hasten denenean. “Zero puntuak” espazioa sortzeko balio du. Arnasketa ekintza bezala, arnas hartzearen eta botatzearen artean, geldiune, isiltasun espazio bat dago. Hemen eta orain egoteaz kontziente egiten gaitun isiltasuneko, gelditasuneko espazio bat da.”

Haur-ikusleak sentitzen duen lehen “zero puntua” antzokian sartzen den eta artistarekin bat egiten duenean da. . Hori dela eta, oso garrantzitsua da nola ematen diegun harrera eta nola den lehen aldiz publikoarekin elkartzen garen momentua, lehenengo begirada.

2-ZER ETA NOLA KONTATZEN DUGU?

Zer lengoaia erabiltzen dugu eszenatik komunikatzeko? Espazioari, akzioari, eta irudiari dagokienez proposamenekin jolasten da. Bai dantzan, bai antzerki sorkuntzan ere. Gorputza akzioan funtsezko elementua da. Pieza askotan hitzak ez du leku. Honek ez du esan nahi erabiltzeko elementu komunikatiboa ere ezin ez denik izan. Baina nabarmena da ikuste-komunikazioa lehen haurtzaroarekin lan eginez gailentzen dela.

Soinu-espazioa ere oso garrantzitsua da. Askotan, ikuskizunaren identitatea ematen duena izango da eta lana eremu zehaztuan jarriko du. Pentsatu behar dugu hitza komunikazioaren oinarria ezin denean izan, hau egiten dela askotan zentzuen-bidaiaren bidez.

Honek ez du esan nahi haurtxoentzako piezak zentzumen-esperientziak izatera muga daitezenik, jende askok uste duen bezala. Beharrezkoa da lan bateko edukiak haiei estetika soilik baino gehiago eman ahal izatea. Eta lana abstraktua edo surrealista bada, beti dramagintzak sostengatu behar du.

Gure publikoak oso bizi-esperientzia gutxi dauka, baina ez dugu pentsatu behar txikiak izateagatik bere zirrarak mugatzen direla, eszenan eskaintzen diena estimatuko ez dutela edo bizitzaren alderdia batzuk ulertzen ez dituztela. Behatzaile apartak dira, bere emozioekin oso konektatuta daude eta hain zuzen hauek, zirrarak, antzerki-sorrerako funtsa dira.

Txikienekin konpainia batzuek jokia eta esplorazioa, hau da, elementuaren, espazioaren eta gorputzaren esplorazioa, bultzatzen duten elementuak hartzen dituzte abiapuntu bezala. Kasu hauetan “argudioa” zentzu-mailan agertzen da. Lanaren egitura zehazten den neurrian zentzu bideratuagoa joaten da agertzen eta, adibidez, jakin-minari, atxikimenduari, hazteari eta abarrei buruz hitz egiten digu. Prozesua oso irekia denez, artistek etengabeko behaketan egon daiteken materiala sor dezakete.

Hiru urtetik aurrera dauzkaten umeen kasuan, kreazioek karga sinbolikoagoa izan dezakete eta egoera espezifikoei ekiten diete. Beraz, interesatzen zaizkien edo hurbilak egiten zaien gaiekin lan egitea bilatzen da eta bere errealitateko istorioak kontatzea, espektro zabal batean. Zaila eta larriak diren gaiei buruz hitz egin daiteke. Nire iritziz, hau oso beharrezkoa da, bestela bizi duten errealitateko zati bat kentzen diegu. Garrantzitsua da nola egin.

3-EGIATIK LAN EGITEA

Gogoeta pertsonal bezala, haur antzerkian ikusleari estimulazio gehiegi ematearen joera izan da, arintzeko eta arreta mantentzeko asmoarekin. Egia esanda, aurkakoa egiten dutenak interesgarriagoak diruditen proposamen eszenikoak dira. Hauetan, estimuluak aukeratzen eta kudeatzen dira ardura handiarekin. Beharrezkoa da denbora eta espazioa haurrei ematea informazioa digeritu, akzionatu eta ingurunearekin eragin ahal izateko.

Hautzaroko aldi honetan “denbora” beti orainaldian bizi dela gogoratu behar dugu. Haur-ikuslearentzat “geroa” ez da existitzen. Beraz, bizi izandako esperientziak izugarriko intentsitatea eta egia absolutua daukate. Haurrak ez du ikusle sinplearen moduan jokatzeko, hark ikuskizuna bizi eta arnasten du. Gure lanaren gakoa hemen dagoela uste dut eta hemendik ere gure exijentziak hasi behar du, hots, egiatik, gure elementu organikoekin lan egitea eta haur antzerkia urte askotan zeharbildu duen artifizioa ahaztea.

Omar Meza, dantzaria eta “Date Danza”-ko zuzendariak, haurtxaro txikiarekin bere lehen esperientziak gogoratzen ditu:

“Las primeras veces que empecé a actuar para bebés me daba mucho miedo cuando lloraban, inmediatamente empezaba a sobrereactuar o intentar ser más suave, por qué pensaba que tal vez mi estatura o mi presencia era demasiado grande e imponible. Me di cuenta que lo que no estaba haciendo era mi trabajo como intérprete en ese momento. Me estaba ocupando de lo que está pasando con los niños y ellos no quieren eso. El público adulto me impone el mismo respeto pero yo salgo y bailo. No estoy pensando en si va a llorar o si me va a silbar. Con los niños hay que hacer igual, hay que salir a escena y enamorarlos. Y comencé a prepararme como en un espectáculo para “adultos” concentración, entrenamiento y ensayo, y después mi trabajo de interprete en escena. Me di cuenta que los niños y las niñas mi público estaban más atentos en mi trabajo como bailarín. “

Interpretatzaile bezala, adin hauekin lan egiteko orduan, gure estrategia nagusia begirada da. Modu honetan, artistarekin eta haren aurrean eszenan sortzen den guztiarekin ikuste-kontaktuak haurren lotura sortzen du. Egia da helduak eta adin txikiko publikoa oso ezberdinak direla, baina interpretazioa egiatik, profesionaltasunarekin, egitea beharrezkoa da. Zeren haur-ikusleak ikusten duena ez baitu sinesten, bere arreta eta interesa lortzea ezinezkoa da. Lehen urteetarako antzerki-esperientziak enpatia indartzen dute, eta azken hau antzerkiari erantzen zaizkion bertute handietako bat da.

Eremu honetan espazio eszenikoaren egokitzearen garrantzia ere pentsatu behar dugu. Antolamenduak komunikazioa bultzatu behar du. Egoera askotan horizontaltasuna, interpretatzaileak eta ikusleak gertaera eszenikoko ko-sortzaile bezala balioesten dituen aukeratzen da eta lehenago hitz egin dugunaren haur-ikuslearen lotura errazten du.

4-HEZIKETA-ANTZERKIA

Amaitzeko, beti kezkatzen nauen kontua aipatzea gustatuko litzaidake: Haurrentzako antzerkiaren eta helburu pedagogikoaren arteko lotura sortzeko daukagun joera. Lehen haurtxarorako ikuskizun bat sortzeko orduan pedagogia beharrezkoa da, jakina, adin-talde bakoitzarekin funtzionatzen duen komunikabidea aurkitu ahal izateko. Baina antzerki esperientzia helburu didaktikoarekin lotzen dela, esperientzia "produktiboa" bilatzen dela uste dut.

Antzerki eremua espazio artistikoren gisa babestu behar dugu. Esperientzia artistikoak helduen eta haurrengan eragina bera izaten du, hau da, hausnartzen laguntzen digu, pertsonak kritikoak izaten, bizitzen eta emozioak balioztatzen, gure bizitzako beste dimentsio batzuekin harremanetan jartzen. Antzerkiak ez du "zerbait" irakatsi behar, ezta haurtxoentzako estimulazio modua izan behar.

Helburua esperientzia artistikoa sortzea da. Munduarekin, objetuekin, fenomenoekin, eta experimentatzen duenarengan plazerra, zirrarak eta ezaguera mota produzitzen dituzten egoerekin topaketa modu bat bezala definitzen.

Haurrak, publiko gisa, esperientzian murgilduta sentitzea nahi du. Bere alde dagoen zerbait topatu nahi du, lagundu eta uler dezala. Orokorrean, erakusleak gu bidean bere ondoan egotea behar du eta artista gisa gure arrakastak eta akatsak berarekin partekatzea.